

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 658/2016 Erabakia, urriaren 13koa, behin betiko onartzen duena ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa Gasteizko udalerrriaren barruan, ezaugarri berezietako ondasun higiezin (EBOH) gisa kalifikatuta dagoen Forondako aireportuari dagokionez

Irailaren 16ko 491/2016 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketari Gasteizko udalerrriaren barruan, ezaugarri berezietako ondasun higiezin (EBOH) gisa kalifikatuta dagoen Forondako aireportuari dagokionez.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikuluko 4. paragrafoan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igaro ondoren Gasteizko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa, Gasteizko udalerriri dagokiona, ezaugarri berezietako ondasun higiezin gisa, horrekin batera doan 1:10000 eskalako planoaren arabera.

Bigarrena. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 2. artikulua b) idatz zatiaren 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo dauden hiri izaerako eraikuntzek hartutako lurzoruaren tratamenduari dagokionez.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko interesdunek egoki irizitako erreklamoak aurkez ditzaten. Gasteizko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikulua 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ